

†  
J. H. S.



ELEIZ  
ABESTITXOAK

A. M. D. G.

et

B. M. V.

V

43



-82390 / F. 87419

ATV

39243



# ELEIZ ABESTITXOAK

Gaubeka'ren irafkolan

Befmeo



THE UNIVERSITY OF CHICAGO

CHICAGO, ILL.



# EUKARISTIA'ri

---

## OSTIAN BIZI ZARA

*Ostian bizi zara  
Gau t' egun nigaitik,  
Maiteko zaitut beti  
Biotz - biotzetik,  
Maiteko zaitut beti  
Biotz - biotzetik.*

1

2

Kurutzan yosi  
Zaitu inpernuak,  
Eta munduak  
Ukatu,  
Sagrarioan  
Bakaridadean,  
Or ilunpean  
Bastertu,  
Baña guk, Jesus,  
Zu maitatzea  
Edo iltea  
Nai dogu.

¡Nor ez da afitzen  
Zu altarean  
Or ikusfean  
Eskale!  
Gizaldietan  
Biotzen bila,  
Guri begira  
Maitale.  
¡Ai, ene, Jesus!  
Nire biotza  
Ezin bizi da  
Zu gabe. (Eleiz a. 105)

## NEGAREZ SAGRARIOAN

1

Negaraez Sagrarioan  
Dago Jesus laztana,  
Gurekin alaituko da,  
Guazen ba Beragana.

2

Saminki negaraez  
Gure Jaun laztana,  
Gurekin alaituko da  
Guazen ba Beragana.

3

Zure begi negaritsuak  
Gatoz gu legortzera,  
Zure Biotz mingoztua  
Gozakiz betetzera.

4

Umeak ba-dakaritzugu  
Zuretzat biotz bana,  
Zurekin bizi gaitezen  
Zurekin beti, Jauna.

5

Eriko ume danak gatoz  
Pozkaritzat Zugana,  
Bada Zuk esan zenduan:  
Betoz umeak Neugana. (Ele. a. 129)

## AGUR OGI BIZIA

- 1 Agur Ogi bizia,  
Osaki ta argia,  
Opagai deunak Zeugan  
Dira amaituak.  
Aitari dagiozu  
Aintza amaibagea,  
Eleizaren zaintzale  
Zintzoa Zeu zara.
- 2 Zeu sendoen indara,  
Makalen euspina,  
Zaintoki ta kerizpe  
Bidezkariena.  
Etsayen oldar-gunak  
Birindutakoan  
Ez gaitezala inolaz  
Galdu azkenean.
- 3 Geu danon osagaya,  
Poz ta itxaropena,  
Eskara ta sariya  
Goi-zerutarena.  
Jaun-zale, bai, biotzak  
Zeu gora nayian,  
Orain dabilta eta  
Betiraun guztian.

## MAITAGARÍA

1

Maitagaría zara,  
 Ene Jesus,  
 Jesus ezta.  
 Guztiz maitagaría,  
 Ene Jesus.

*Biotzaren poza,*  
*Gogoen argia,*  
*Jesus maitia,*  
*Jesus maitia.*

2

Aguígaría zara,  
 Ene Jesus,  
 Jesus ezta.  
 Guztiz aguígaría  
 Ene Jesus.

*Biotzaren poza...*

3

Guztiz altsua zara,  
 Ene Jesus,  
 Jesus gozua.  
 Guztiz zara altsua,  
 Ene Jesus.

*Biotzaren poza...*

4

Atsegintsua zara,  
 Ene Jesus,  
 Jesus gozua.  
 Guztiz atsegintsua,  
 Ene Jesus.

*Biotzaren poza...*

(Eleiz abesti 114)



## ZATORKIT, JAUNA

*Jauna, neure biotzak  
deitzen dautzu,  
zatorkit bada, laster,  
neure Jesus.*

1

Egiaz siñisten dot  
or zagozala,  
neure Jaun eta  
neure Jaungoikoa,

ni, ene Jesus gabe,  
naiz galdua.

zatoz Jesus maitea  
biotzera,  
zatoz Jesus maitea  
biotzera.

5

Zuregandik, o Jauna,  
ni uruti,  
ezin ninteke olan  
ni bizi,


2

Intzik artzen ez dauan  
loratxua,

Zure zain gau eta egun  
nago beti.

laster ikusiko da  
igartua,

(Eleiz abesti 125)



Jesus Aurtxua

Yuan da mastira,

¿Zer nai ete dau?

Zer dakar etxera?

Odol darion

Mats mordo edera.

Jesus Aurtxua

Yuan da solora,

¿Zer bilatzen dau,

Zertara dua?

Galburutxu bat

Artu dau eskuan.

Itandu eutsan

Etxean Mariak:

—¿Zer dakazu or

Ene Semetxua?

—Aurkitu dodan

Gauzarik onena,

Eukaristiko

Ogi ta Ardaua. (Eleiz ab. 124)

## OGI - ITXURAN

—

*Ogi - irudipeko  
Jainko bildotsa,  
idigi eidazu  
Zeure Biotza.*

1

3

Ezti ona baño  
gozoagoa,  
gogo ziñezkoentzat  
bide zintzoa,

Ludi bizitzako  
itxaropena,  
eriotz-aldian  
pozgiliena.

2

4

Samiñak gozotzen  
ondo dakizu,  
eriotz lañiak  
kendu eiguzuz.

Emengo bizitzan  
zuzendaria,  
ilunpe aserean  
Zeu zara argia.

(Eleiz abesti 117).

## ZATOZ, JESUS

*Zatoz, Jesus guztiz ona neuregana,  
Zurekin dot zoriona, zatoz, Jauna.*

1

Emen zagoz, Jesus ona,  
Altarean,  
Bizi nairik beti neure  
Biotzean.

2

Zorionik ez daiteke  
Zugan baizik,  
Zatoz, Jauna, ez yun iñoiz  
Zu nigandik.

3

Aurtxuak maite-maite dau  
Bere ama,  
Biotz onek maiteago  
Jesus Jauna.

(Eleiz ab. 126).

## ZATOZE SEMETXUOK

—

Zatoze, semetxuok  
 zatoze Nigana,  
 garbitasun lilia  
 Neurea da dana.

Yan nagizue, zuen  
 gosea betetan  
 ikusiko dozue  
 zein gozoa nazan.

Jesus'ek deitzen gaitu  
 guazen Beragana,  
 egizkoa dalako  
 beti bere esana.

Neure lili maiteak,  
 obena urundu,  
 zuen zurtasuna  
 ez daiten zikindu.

Munduko yausbidetan  
 deitzen ba daustazu,-e  
 zein lagun ona nazan  
 ikusiko dozu.-e

(Eleiz a. 130)

## ALPERIK DABILTZA

Alpeñik dabilta,  
 Alper - alpeñik,  
 Euskaldun Eñia  
 Jesukristo'ri  
 Kendu ezetz, kendu ezetz,  
 Euskaldun Eñia  
 Dauka gorderik  
 Loyola'k; Loyola  
 Gaztelu ori  
 Artu ezetz, artu ezetz.  
 Ez dogu nai, Jauna,  
 Euskal Eñirik  
 Zuretzat ez bada  
 Oso - osorik

Ez dogu guk nai ez, ez dogu guk nai ez,  
 Loyola'n, bai, Loyola'n  
 Euskal - Eñiyak  
 An, Loyola'n, biotza  
 Dauka yañiya,  
 Etzara ez ilgo  
 Eñi maitea;  
 Loyola'n Zuk Biotza  
 Dozu gordea  
 ¡Ain gordea!  
 ¡Ain gordea! (Eleiz abesti 241).

# Jesus'en Biotza'ri

---



## ZEUGANANTZ GUAZ

*Zeuganantz guaz  
Jesus beti;  
idigi, bada  
Biotz ori. (Bifitan)*

1

Jaunak Beretzat deitzen gaitu,  
Guk Aren deya artu dogu;  
O zein gozoa guretzat dan  
Jesus maitea  
Zure deya.

2

Jesus'en deya entzun dogu,  
Beraganuntza ba-goaz gu;  
Aren Biotza aurkiturik  
Poz - pozez gagoz  
Zoraturik. (Eleiz a. 137).

## JESUS ONAREN BIOTZA

*Jesus onaren Biotz ona*  
*Éruki zaite gutzaz, Jauna. (bifitan)*

1

Ainbesteraño gozuz maite  
 Zeure Biotza geutzat dozu;  
 Jesus maitea, baita guk be  
 Zeuri erantzun nai geunskizu.

2

Maitezko laba goritua,  
 Maitasunean su-gartua;  
 Sutu egizu gaur mundua,  
 Gizonen biotz izoztua.



## ZATOZ, AGUIRO

*Zatoz aguro, Jaun onena,  
Zeu zara gure onespena.* (biritan)

1

Artu gagizuz  
Gaurtik betiko  
Jesus maitea;  
Zeu bakañik  
Izan zaitezán  
Gure Jabea.

2

Auñerantzean  
Zeu maitetutzen  
Guk al - gustia;  
Zeu bañiz, Jauna,  
Itxi baño len,  
Galdu bizia.

(Eleiz ab. 139).

## Z A T O Z J E S U S

*Zatoz Jesus laztana,  
 Zatoz gure Erege,  
 Gaur goratzen zaitugu  
 Gure Jaun eta Jabe (biñitan)  
 Gaur goratzen zaitugu  
 Gure Jaun eta Jabe.*

Betor lenbait len geugana  
 Zeure jabetasuna,  
 Etsaiak oiñperaturik,  
 Betor bai garaipena,  
 Betor bai garaipena.

*Zatoz Jesus laztana...*

(Eleiz abesti 142)

## GUGAITIK ZAGOZ

*Gugaitik zagoz, Jesus,  
Biotza zauriturik;  
Gaurtik bizi gura dot nik  
Zurekin bat egiñik. (iru bidar)*

1

*Nik Zurekin bizi nai dot,  
Zurekin bat egiñik,  
Zurekin bat egiñik,  
Zurekin bat egiñik.*

2

*Zeuri deyez dot biotza,  
Atoñ, Jesus laztana,  
Zeure Biotzeko gañez  
Biztu neurea, Jauna. (bifitan)*

## GORATU DAIGUN

*Goratu daigun beti  
 Jesus'en Biyotza,  
 Zeureak zeru ta lurak,  
 Zeurea gure biyotza:  
 Zeu gure Yaun eta Yaube,  
 Zeu gure Éregea.  
 Agindu gure artean  
 Jesus'en Biyotza.*

Gorde gagizuz Jesus  
 Bai betiko Zeure Biyotzean;  
 Bedeinkatu gagizuz  
 Ta Zeugandu, Yaun andiya.

(Eleiz abesti 145)

¡O BIOTZ SANTU!

*¡O Biotz santu maitatia!*

*Zeu gure Erege, Yaun aundia.*

1

Guazen kristauak,  
 bai - da munduan  
 eta zeruan  
 agurgarí:  
 guazen geuk bere  
 gurtu dagigun  
 ta aintza dagigun  
 Biotz ori.

2

Zeu zara Jesus  
 maite - maitea,  
 neure Jaubea  
 ta Jainkoa:  
 ba - gayatortzuz  
 naigabeturik,  
 gustiz apalik  
 Zeu-aurera.

(Eleiz abesti 146)

## EMEN NAZ, JESUS

*Emen naz, Jesus,  
Zeure ondoan,  
Sagrarioan  
Maite zaitut. (bifitan)*

## 1

Mundutik iges  
Nator Zeugana:  
Ementxe, Jauna,  
Bizi gura dot. (bifitan)

## 2

Biotz aserik  
Ez da munduan  
¡Sagrarioan,  
Ortxe bakañik! (bifitan)

## 3

Nork ez nai izango  
Jesus maitea,  
Zeu maitatzea  
Dalarik gozo. (bifitan)  
(Eleiz abesti 147)

## KRISTO GURE ÉREGE

*Gora dagigun Kristo Érege,  
Jaungoikoaren Semea,  
Gora dagigun kristau guztiok  
Jaungoiko gizon Jaubea,  
Jaungoiko gizon Jaubea.*

## 1

Jaungoiko danez Érege dala  
Guztiok dogu siñisten;  
Gizona danez agintaritza  
Dagokiola autortzen.

## 2

Aitak diñotso: «Zu, ene Seme,  
Yafi neure eskumaldean;  
Zeuk dozu neure almen osoa,  
Zeruan eta luñean».

## 3

Bereak gara Berak eginda,  
Kristo da gure Jaubea;  
Berak Odolaz erosi gaitu,  
Kristo da gure Érege.

4

Gureztat Kristo Egi bakafá  
Gureztat Bera Legea;  
Gureztat Kristo Bizitza eta  
Bera bakafik Bidea.

5

Etsai afoak oyuka dabiliz  
«¡Ez dogu nai gure Efege!»  
Kristau guztiok erantzun daigun  
«¡Kristo da gure Jaun - Jaube!»

(Eleiz abesti 155)

---





# Andra Maria'ri

---

## SALVE REGINA

---

Salve Regina cœlitum

O María.

Sors unica terrigenum,

O María.

Jubilate Cherubim,

Exultate Serafim,

Consonate perpetim.

Salve, Salve,

Salve Regina.

(Eleiz abesti 52)

---

## MARIAREN ALABAK

Maria'ren Alabak  
 Gatoz Eleizara  
 Maria'ren aurean  
 Otoi egitera,  
 Fedean sendotuta,  
 Burdiña bezela,  
 Etsaiak botateko  
 Danak, danak bera,  
 Etsaiak botateko  
 Danak, danak bera.

Inpernua zapaldu,  
 Mundu txara astindu,  
 Luzifer'en lagunak,  
 Betiko garaitu;  
 Jesus eta Maria'k  
 Gaitzala gu zaindu  
 Euskal-Erietako  
 Semiak nai dogu  
 Agur, agur, agur Maria,  
 Agur, agur Sortzez Garbia.

## GUZTIZ AGURGAÑA

Guztiz agurgaña,  
Guztiz edeña Maria;  
Zu zara Jesus'en Ama  
Erugabe Sortua.

Gure Ama zoragañiak  
Daukaz zeruak pozturik,  
Aingeru dontsu guztiak  
Maitetasunez beterik,  
Guztiz edeña Maria,  
Guztiz agurgaña.

(Eleiz abesti 167)

---

## A M A M A I T E

Ama maite - maite onen  
Deitzen garan Alabak,  
Berari gaur eskintzera  
Goazen gure biotzak.

Bere Sortze garbiaren  
Izen zoragarían  
Gorde gaizala guztiok  
Bai bere Biotzean.

(Eleiz abesti 166)

## POZEZ BETERIK

*Pozez beterik goazen  
Maria'ren gana,  
Mayetzeko lorakin  
Biotza eskintzera.*

Pozez beterik goazen  
Maria'ren gana,  
Mayetzeko lorakin  
Biotza eskintzera,  
Mayetzeko lorakin  
Biotza eskintzera.

Zure seme - alabak  
Goiztar egunero  
Loren bila gabiltza  
Alai ta zintzoro,  
Yakiñik Zuretzako  
Dirala guztiro  
Ama pozten da gure  
Biotza gozoro.

Loreak utsak dira  
Ez bada biotzik  
Onbidez apaindua  
Loretan gorderik. (Eleiz a. 191)

## AGUR BIRJIÑA EDER

Agur Birjiña eder  
Ama zerukoa,  
Izan nai dot beti  
Zure antzekoa.

Zure edertasun zoragarriak  
Zureganatu beiz  
Guztion begiak  
Soñeraz garbia zara Maria. (biñitan)

(Eleiz abesti 159)

## EMEN GATORTZUZ

Emen gatortzuz zeure Alabak  
uste osoaz Zeugana;  
entzuxu aŕen geure eskariya,  
geure Amatxu laztan - laztana.

Jaunaren Ama agurgariya  
orbanik baga Sortu zan,  
eguzkiyaren argiya baño  
garbiyagua izan zan.

(Eleiz abesti 151)

## AGUR JAINKOAREN AMA

1

Agur, Jainkoaren  
Ama maite edeña,  
Zeruko atea,  
Itxasoko izaña,  
Zeruko atea,  
Itxasoko izaña.

2

Gabriel'en aoz  
Aguña arturik,  
Eiguzu bakea  
Etsaiak goiturik.

3

Itsuak argitu,  
Lotuak azkatu;  
Emoiguzu ona  
Eta txaña aldendu.

4

Zeuk geure otoitzak,  
Amatxu eskiñi  
Zeugan geuregaitik  
Gizondu zanari.

5

Birjiña edeña,  
Bigun, berezia,  
¡Oi! egin nagizu  
Garbi ta eztiá.

6

Bide zuzenetaz  
Gabiltzan, lagundu,  
Ta il ondoan Jesus  
Erakutsi eiguzu. (Eleiz abesti 162)



## ZERURA BEAR DOT

Zerura bear dot  
 Zerura, geure eñira,  
 Ta geure Ama Maria  
 an ikusiko dot.

*Zeru goigoian, bai,  
 Antxe ikusiko dot,  
 Zeru goigoian, bai,  
 Antxe ikusiko dot.*

An ikusiko dot  
 Ama zoragaña,  
 Ta aren Sortze garbia  
 Nik abestuko dot.

*Zeru goigoian, bai...*

## ZERUKO AMA

*Zeruko Ama, izar argiya  
Zeu-gana gatoz poz-pozik. (bifitan)  
Geure biyotzak artu egizuz,  
Zaindu gagizuz zerutik. (bifitan)*

1

Gomutau zaite Ama on ona  
lñoiz be esan ezdala  
Zuri deituta laguntza barik  
lñortxo itxi dozula.

2

Biotz-biotzez, geure eñiak  
Zaindari zaitu autetsi;  
Ama begira, eñi gaxo au  
Gorde egizu beti-beti. (El. ab. 168)

## ¡O ZEIN EDER!

¡O, zein eder, zein gozoro  
Zakust Ama neurea,  
Zeruetan izar zuri  
Zelaietan lorea.

Almentsua, bada, zara  
Zeru mendi ta ibar,  
Egin ni luñean lore  
Goi-urdiñean izar. (El. ab. 177)

## GUZTIZ EDERA

*Guztiz edera  
Zara Zu, Maria  
Sortzetik zarala  
Erubagea.*

1

Bardiñik ez dauan  
Izar edereña,  
Zoragariena  
Zara Maria.

2

Grazien iturri  
Amaitzen ez dana,  
Geuretzat zara Zeu  
Ama laztana.

3

Lañosa txit eder,  
Lirio gozoa,  
Zeugan aurkitzen da  
Zeru osoa.

## GOGO LARI

1

Gogo lari ta biotz ilunez  
 Ama ikusten ba'gozuz,  
 Poza dakazun izar eder oi,  
 Goi-goyan ager zakiguz.

2

Goizeko izar, argi-ekarle  
 Geure atsegin onena,  
 Eruki zaite, erakusguzu  
 Zeruko bide zuzena.

3

Izar argitsu, atsegingari  
 Kristauen argitzalea,  
 Itxas arotu suminkoari  
 Emon eyozu bakea.

## LORA GARBIA

1

Lora garbia  
 Kantu gozoak  
 Zeuri pozik eskintzean  
 Artu jo Ama!  
 Neure biotza  
 Gorde zeure biotzean.

*Artu jo Ama! neure biotza  
 Gorde Zeure Biotzean.*

2

Mendi ganetik  
 Eguzki argi  
 Gozoro dator goizean,  
 Gozoroago  
 Goiko doaia  
 Geure ariman sortzean.  
*Artu jo Ama!..*

3

Argi eiguzu  
 Izar Maria  
 Zeruetako bidean,  
 Ibil gaitezan  
 Jesukristoren  
 Siñismen argi batean.

*Artu jo Ama!..* (Eleiz abesti 188)

## GUAZEN, GUAZEN GUZTIOK

*Guazen, guazen guztiok  
Birjiña Amagana,  
Eskintzera biotzez  
Loratxo eder bana.*

## 1

Lora mota guztiak  
Luñaren ganean  
Zeure antzeko dira  
Edertasunean:  
Bardiñik ez dozula  
Garbitasunean  
Lili ederak diño  
Arantza tarñean.

## 2

Loreak utsak dira  
Ez bada biotzik  
Onbidez apaindua  
Loretan gorderik:  
Artuizu, maitasunez  
Bai, doaiz yantzirik,  
Ama, geure biotza  
Lorakin baturik.

## A M A M A R I A

Ama Maria izten zaitut,  
Agur laztana, agur, agur.

Zeure aldetik uruntzean,  
Biotza izten dot zeure eskuetan;  
Beti Zeurekin nai dot bizi  
Eta Zeurekin il maiteki. (El. ab. 193)

## A G U R J E S U S ' E N A M A

Agur Jesus'en Ama  
Birjiña maitea,  
Agur itxasoko izar  
Diztiratzalea,  
Agur zeruko eguzki  
Atsegin betea,  
Agur pekatarien  
Kaya ta estalpea,  
Kaya ta estalpea. (El. ab. 194)

## ZERUA SARITZAT

1

¡Zerua saritzat!

Pozez bete kristauak

Emengo negafentzat

Dauka Jaungoikuak.

*Zerua, zerua, zerua saritzat.* (bifitan)

2

¡Zerua saritzat!

Alai zaitetz gastea

Izaizu betikotzat

Maite birtutea.

*Zerua, zerua...*

3

¡Zerua saritzat!

Zerua aita - amak,

Egin zeuen aufentzat

Otoitz gartsuenak.

*Zerua, zerua...*

4

¡Zerua saritzat!

¡Ai! geure zoriona,

Ba-dogu geuretzat

Betiko atsegiña.

*Zerua, zerua...*

(Eleiz abesti 198)





## O QUAM AMABILIS

---

O quam amabilis es  
 Bone Jesu,  
 O dulcis Jesu  
 Quam delectabilis es  
 Pie Jesu.

*O Cordis jubulum  
 Mentis solatium  
 O Bone Jesu,  
 O Bone Jesu.*

Quam admirabilis es  
 Bone Jesu o dulcis Jesu,  
 Quam honorabilis es  
 Pie Jesu.

*O Cordis...*

Quam venerabilis es  
Bone Jesu o dulcis Jesu,  
Semper laudabilis es  
Pie Jesu.

*O Cordis...*

Gregi fidelium es  
Bone Jesu o dulcis Jesu  
Salutis exitum es  
Pie Jesu.

Post vitæ terminum  
Perenne gaudium  
O Bone Jesu,  
O Bone Jesu.

(Eleiz abesti 35)

---

## CHRISTUS VINCIT

*Christus vincit,  
Christus regnat,  
Christus, Christus  
Imperat.*

Adoramuste Christe,  
Et benedicimus tibi,  
Quia per sanctam Crucem tuam  
Redemisti mundum.

*Christus...*

Tempora bona veniant,  
Pax Christi veniat,  
Regnum Christi veniat.

*Christus...*

Pro undecimo, Sumo Pontifice,  
Et universali Papa, vita,  
Et salus perpetua.

*Christus...*

Reverendissimo Domino Matthæo,  
Vitoriensi Episcopo  
Vita, et salus perpetua.

*Christus...*

(Eleiz abesti 43)

---

# BIĀBIDEA

## Oñialdea

<b>Eukaristia'ri.</b> — Ostian Bizi Zara . . . . .	1
Negafez Sagrarioan . . . . .	2
Agur, Ogi Bizia . . . . .	3
Maitagarfia. . . . .	4
Zatorkit, Jauna . . . . .	5
Galburu ta Mats-mordoa . . . . .	6
Ogi - itxuran. . . . .	7
Zatoz, Jesus . . . . .	8
Zatoze Semetxuok . . . . .	9
Alpeñik dabilta . . . . .	10
<b>Jesus'en Biotza'ri.</b> —Zeuganantz guaz . . . . .	11
Jesus Onaren Biotza. . . . .	12
Zatoz, aguro. . . . .	13
Zatoz Jesus . . . . .	14
Gugaitik zagoz. . . . .	15
Goratu daigun . . . . .	16
¡O Biotz Santu . . . . .	17
Emen naz, Jesus . . . . .	18
Kristo gure Efege . . . . .	19
<b>Andra Maria'ri.</b> — Salve Regina . . . . .	21
Mariaren Alabak . . . . .	22
Gutziz Agurgarfia . . . . .	23
Ama maite . . . . .	24
Pozez beterik . . . . .	25
Agur, Birjiña eder . . . . .	26
Emen gatortzuz . . . . .	27
Agur Jainkoaren Ama . . . . .	28
Zerura bear dot. . . . .	29
Zeruko Ama . . . . .	30
¡O zein eder!. . . . .	30
Gutziz edefa . . . . .	31
Gogo lafi . . . . .	32
Lora garbia . . . . .	33
Guazen, guazen guztiok . . . . .	34
Ama Maria . . . . .	35
Agur Jesus'en Ama . . . . .	35
Zerua saritzat . . . . .	36
<b>O QUAM AMABILIS . . . . .</b>	37
<b>CHRISTUS VINCIT . . . . .</b>	39


BILABIDEA

04

1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32-33-34-35-36-37-38-39-40-41-42-43-44-45-46-47-48-49-50-51-52-53-54-55-56-57-58-59-60-61-62-63-64-65-66-67-68-69-70-71-72-73-74-75-76-77-78-79-80-81-82-83-84-85-86-87-88-89-90-91-92-93-94-95-96-97-98-99-100

Eukaryotes: -  
Plantae: -  
Animalia: -  
Fungi: -  
Chlorophyta: -  
Rhodophyta: -  
Charophyta: -  
Embryophyta: -  
Mollusca: -  
Arthropoda: -  
Chordata: -  
Mammalia: -  
Aves: -  
Reptalia: -  
Amphibia: -  
Insecta: -  
Nematoda: -  
Cnidaria: -  
Mollusca: -  
Annelida: -  
Platyhelminthes: -  
Ciliophora: -  
Alveolates: -  
Excavates: -  
Opisthokonta: -  
Eukaryotes: -

1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32-33-34-35-36-37-38-39-40-41-42-43-44-45-46-47-48-49-50-51-52-53-54-55-56-57-58-59-60-61-62-63-64-65-66-67-68-69-70-71-72-73-74-75-76-77-78-79-80-81-82-83-84-85-86-87-88-89-90-91-92-93-94-95-96-97-98-99-100



A

39